

Dena den, Fidel Castrori dagokionez, erromantizismoak eta nostalgiak alde batera utzita, argi eta garbi utzi nahi dut niri ez litzaidakeela gustatuko militarrez jantzitako norbaitek, hauteskundeetara bere burua inoiz aurkezten ez duen norbaitek, ni gobernatzea. Hori ez litzaidake batere gustatuko, egon ziur.

Hau esanda, argi eta garbi ere utzi nahi dut askoz gehiago nahiagoko nukeela 40 urtez Espainian Fidel Castro batek gobernatu izan bagintu, Franco Jeneralak gobernatu beharrean. Horretaz ere inork ez dezala dudarik txikiena izan.

Eta guztiz argi ere utzi nahi dut hau: Hego Amerikak izan dituen diktadore guztiak Fidel Castroren tamainakoak izan ahalko ziren!!

Pinochet, Videla, Stroessnees, Hugo Banzer... Herrialde horietan Fidel Castro batek gobernatu izana zinez nahiago nukeen, boteretsuen eta euren buruaren zerbitzuan aritutako genozida, txakur amorratu horien guztien ordeez.

Fidelek, behintzat, bazituen ideal batzuk eta bere herrian sinesten zuen.

Egia esateko, Hego Amerika oso berezia da. Europako ikuspegitik den-dena ezin dugula epaitu esan nahi dut, zeren, hala eginez gero, susmoa dut kontuak ez zaizkigula aterako.

Aditzaile onari, hitz gutxi...